



**DEIALDIA, LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO INGURUMENEO GOI-MAILAKO TITULUDUNAREN 2 PLAZA ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA DEIALDIA BETE GABE DEKLARATZEA**

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau onetsi du 2026ko ekainaren 2an:

Bat etorrita hainbat lanpostutako plaza hutsak, horien artean ingurumeneko goi-mailako tituludunaren 2 plaza, lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren laugarren oinarriarekin, zeina Giza Baliabideetako zuzendariak 2026ko otsailaren 5ean onetsi eta 2026ko 38. NAO, otsailaren 20koan, argitaratu baitzen, EBATZI DUT:

1.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea eta deialdia bete gabe deklaratzeara.

**Onartutako izangaiak**

Bat bera ere ez

**Baztertutako izangaiak**

**Ez betetzeagatik deialdiaren oinarrietako 2.1.a eta 2.1.b betekizunak**

| NANa      | ABIZENAK ETA IZENA   |
|-----------|----------------------|
| ***1733** | PÉREZ COLOMO, ANDREA |

Legenda:

2.1.a) Iruñeko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako langile finko izatea, haien egoera administratiboa edozein dela ere.

2.1.b) Deialdiaren xede den lanpostu berean izendatua izatea.

2.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



c) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, BI HILABETEKO epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko ekainaren 2an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.